

2003ko ekainaren 19a • XXIII. urtea



Laxoaren Gida argitaratu da

03

Laxoa Elkarteko Tiburtzio Arraztoak eta Josu Primek 'Laxoaren Gida' liburuxka argitaratu dute, kirol honen ezaugarriak «*modu xiple eta praktikoan azaltzeko*».



Sanjuanak, Sanpedroak...

GB

Udarekin batera, herriz herriko bestak heldu zaizkigu. Ale hone-tan, Arizkun eta Saldiasko Sanjuanen eta Doneztebe eta Erratzuko Sanpedroen berri duzue.

04 Egunkariaren oinordeko «Berria» heldu da



PRESTATU ZURE IBILGAILUA UDARAKO



Banarta, 2 • Alkaiaga industrialdea • LESAKA • Sarrera Beratik • 948 625 555



- Auto marka guzien konponketa • Seat, Audi, Volkswagen markatan espezializatuak •
- Txapa, pintura, mekanika eta elektrizitatea • Pre-ITV • Direkzioa eta klimatizazioa •


MUEBLES AMETS

Iarunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERAtik da**
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak
AUKERA HANDIAK



DATUAK...

- «Laxoaren Gida» liburuxka idatzi dute Tiburtzio Arraztoa eta Josu Primek. 64 orri ditu, erdiak euskaraz eta erdiak gazteleraz.
- Pilota modalitaterik zaharrena bada ere, pilotazaleendako ezezaguna da laxoa. Horregatik, Laxoaren Gida honek historia, kultur eta kirol aldetik altxorra den honetara hurbildu nahi gaitu.
- Jesus Jaimerena iruritarra 1960an eta Laxoa Elkartea 1980tik honat kirola berreskuratu nahian dabiltza.



Tiburtzio ARRAZTOA «Laxoaren Gida» liburuaren egilea

ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

«Modu praktiko eta ximplean azaltzen ditugu laxoaren ezaugarriak»

Ainara MINDEGIA

Nondik sortu zitzaizuen liburuxka hau argitaratzeko asmoa?

Liburu hau Nafarroak eta Akitaniak duten elkarlan komenioan sartzen da. «Euskal pilotaren gogo» izenburua duen proiektu honek baditu hiru atal edo hiru liburu. Duela hilabete batzuk, Akitaniako kideek, hau da, Pierre Sabalo eta Jakes Casaubonek beren bi liburuak argitaratu zituzten, bat artzainen jokuei buruz, non pilotak hartzen duen zatirik handiena: hemen agertzen dira Iparraldeko pilotako plaza libre guziak. Bigarren liburuan pilotasoroak ageri dira. 60 pilotasoro aztertzen dira, gehienak Iparraldekoak, baina baita Baztan eta Malerreka ere. Gurea dugu hirugarren liburua, «Laxoaren Gida», euskaraz eta erdaraz, eta 64 orriekin. Testua ilustratzeko ehun bat argazki eta marrazki bildu dira.

Zein helbururekin eman duzue argitara gida hau?

Gure helburua modu ximple baina praktiko baten bidez laxoa jokoa eta laxoaren inguruan dauden osagai guztiak deskribatzea izan da. Badakigu

«XIX. mendeko azken zatira arte kirol nagusia zen laxoa. Ezker eta aitzin paretak agertu zirenean, joku zuzenak, tartean laxoa, desagertzen joan ziren»

laxoa dela pilota jokurik zaharrena, baina gaur egun, agian, guttien eza gutzen dena. Orduan, laxoa partida bat ikustera hurbiltzen diren guziak jokoa zer den, nola kontatzen den, ezaugarriak, eta bertze jakingarriak ezagutzea nahi dugu.

Zein laguntza izan dituzue liburua prestatu eta argitaratzeko?

Nafarroako Kutxak dirulaguntza bat eman digu hau kaleratzeko. Erran dudana bezala, Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniaren arteko komenio hortatik ere dirulaguntza eman digute... Modu berean aipatu nahi nuke Cederna-Garalureko Izaskun Abril, paperen tramitazioan eta horrelako gauzetan lagundu digulakoz. Lagundu diguten guziak eskertu nahi nituzke. Laxoa Elkartea argitaratu ditu 1.300 aleak eta 7 eurotan salgai daude.

Nolako harrera izan du liburuak?

Nik uste laxoa inguruan mugitzen den jendea kontent gelditu dela alde batetik, eta bertzetik harritua. Egilea nainenez igual ez da ongi nik erratea, baina harriturik zeuden lan polita zelako, ongi eginga eta Gidak duten helburua betetzen zuela, hau da, modu praktiko batez deskribatzea laxoaren osagarriak.

Laxoaren historia ttiki bat ere egi-ten duzue Gidan. Zergatik galdu du garai batean zuen lehentasun hura?

XIX. mendeko azken zatira arte Euskal Herriko kirol nagusia zen laxoa. Orduan agertu ziren bertze modalitateak, xistera, zesta-punta, erre-montea... Ezker eta aitzin paretak agertu zirenean, joku zuzenak desagertzen joan ziren. Jokatzeko aukera gehiago ematen zuten, jende guttiagorekin. Laxoa kasik desagertu egin zen, baina 1960. urtean, Jesus Jaimerena apez iruritarrek lau urtez berpiztu zuen. Gero, herriko bes-tatan bakarrik jokatzen zen, 1980an Laxoa Elkartea txapelketa berriz ere berreskuratu zuen arte.



ARGAZKIA: EGUNERO

Ekainaren bigarren hamabostaldian, San Juan egunaren inguruan, ikusiko du argia euskarazko egunkari berriak, hain zuzen «Berria» izenburuarekin. Epailearen aginduz Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkaria itxi eta administrazio kontseiluko hamar kide atxilotu zituenetik lau hilabete beteko direnean, egunkari berri horrek argia ikusiko du. Bien bitartean, hainbat kontu gertatu dira: Donostiako manifestazio handia, martxoaren 13ko geldialdia, harpidetzak egiteko eta akzioak erosteko kanpainak, herriz herri antolatu diren ekitaldi ezberdinak eta, azkenik «Berria»ren aurkezpena. Dena den, akzio eta harpidetza kanpainak oraindik ez dira akautu, azken finean, egunkari berria bildutako diruaren arabera izanen baita.

HELDU DEN ASTEAN KARRIKARATUKO DA SEGURUENIK

Euskaldunon Egunkariak utzitako hutsunea betetzera dator «Berria»

Aitor A.

Berria izanen du izena, eta zabal-tasuna eta independentzia oinarri nagusi. Egunkari berria argitaratuko duen enpresako Administrazio Kontseilu berriak «egunkari berriaren independentzia eta zabal-tasuna bermatzeko» konpromisoa hartu zuen ekainaren 7an Andoainen egindako agerraldian.

Joxean Lizarribar enpresagizona izango da Euskarazko Komunikazio Taldea SAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria. Joanmari Larrarte-idazkaria, Xabier Kintana, Adol-

fo Arejita, Pello Zabala, Joxemari Sors, Patxi Noblia, Ane Agirregomezkorta eta Iñaki Dorronsorok osatuko dute kontseilua. Hauen artean, Lizarribar, Sors eta Noblia Egunkariako Administrazio Kontseiluko kide izanak dira. Guztira 11 kide izango ditu Kontseiluak, ekainaren 7an aurkeztutako bederatziez gain langileek bi ordezkari izango baitituzte. Berria izenaren aukeraketari buruz, berria hitza bi adieratan egokia delako aukeratu dutela azaldu zuen Lizarribarrek: «Berrietasuna adierazten du, eta albisteak ere esan nahi du». Kapital gehitzea

bide onetik doala azaldu zuen Joanmari Larrartek: dagoeneko milioi bat euro bildu da, kapital gehitze osoaren % 20 beraz. «Balorazio ona egiten dugu, baina parte hartu nahi duten guztiei dei egiten diegu akzioak lehenbailehen har ditzaten, kapital horren beharra baitugu proiektu berria sendo abia dadin».

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN OINORDEKOA IZANEN DA «BERRIA»

Jakina, Otsailaren 20an indarrez itxiarazi zuten Egunkariak utzitako hutsunea betetzera dator «Berria».

LAU HILABETEKO KRONOLOGIA LABURRA

Otsailaren 20a

Del Olmo epailearen aginduz, guardia zibilak Euskaldunon Egunkariako hamar kide atxilotu, egoitzak miatu eta itxi egiten ditu.




mila lagun bildu ziren. Bi egunetan antolatu zuten manifestazio izugarria.



Egunero kalean

Egunkariako langileak larrialdiko erre-dakzioan, Egunero hurrengo goizean kalean izan zedin jo eta su aritu ziren lanean. Lau hilabeteotan 32 orriko egunkaria ka-



rrikaratu dute baldintza zailetan.

Tortura salaketa

Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendariak torturak salat

zuten prentsaurrekoan. Guardia Zibila-ren egoitzan nola torturatu zuten eta atxilotutako bertze batzuk ere gauza bera salatu zuten. Pello Zubiriak bere burua hiltzen saiatu zela dio guardiazibilak. Berak, bertze atxilotu baten negarrik aditu eta buruarekin pareta kolpatu zuela bertzerik ez du gogoratzen.

Martxoaren 13a, Greba Eguna

Ordubeteko lanuztea

egin zen Euskal Herri osoan.

Tartean bertze hainbat kontzentrazio egin ziren Euskal Herri osoan, baita eskualdean ere. Egunkariaren aldeko plataformak ere sortu ziren. Udal eta Mankomunitate gehienek, sustengu mozioak onartu zituzten.

Ekainaren 14a

Belodromoan besta handia, «Berria» egunkariaren 0. alearen aurkezpenarekin.

Otsailaren 22a

Donostiako manifestazio Erraldoia. Adierazpen askatasuna exijitzeko eta Egunkariari sostengua adierazteko, Donostiako kaleetan ehun



1990ean argia ikusi eta hamahiru urtez euskarazko informazio egunero eman du Euskaldunon Egunkariak. Hasieran zuri-beltzean eta 32 orrialdetan, pixkanaka kolorea sartu eta orri kopurua handitzen joan zen. Edizio elektronikoa ere osatua zuen.

Urtetan Egunkarian eta azken hilabeteotan Eguneron eta proiektu berrian buru belarri aritu den Edurne Elizondo kazetari beratarrak aipatu digunez, «guk denok argi dugu Egunkariaren oinordekoak garela, lan talde bera gara, gure historian Egunkaria dago. Langile gehienok hainbat urte eman ditugu Egunkarian eta argi dago horrek eragina izanzen duela, hori nabaritu dela. Halere, izenak erraten duen bezala, orain produktu berria aterako dugu, egunkari berria izan dena. Diseinu aldetik nabaritu dela ezberdintasunak: egunkari erakargarria izan dena, garbia, zuzena... Ximplea da, ez du hornidura handirik izan, gaur egungo ildoak segituz. Beraz, gibelean nabaritu da Egunkariaren ibilbidea, nik uste nabaritu behar dela gainera, baina produktu berria izan dena, erronka berria eta ilusioak ere berritu egin dira». Hau idazterakoan oraindik eguna finkatu gabe baldin badago ere, San Juan inguruan karrikaratu da lehendabiziko alea.



Zein izan da Egunkariako langileen egoera azken lau hilabeteotan?

Teorian langabezia ego-nik, praktikan inoiz baino lan gehiago egitea suertatu zaigu, denetik

Edurne ELIZONDO *Egunkariako kazetaria*

pixko bat. Hainbat batzorde ezberdin sortu ziren eta horietan lanean aritu gara. Idazten, akzioak edo kamisetak saltzen, solasaldiak ematen... dagoen lana bannatu egin dugu eta denetik egitea suertatu zaigu guzoi.

Harpidedunak lortzeko eta akzioak saltzeko kanpaina ere egin duzue. Gustora zaudete emaitzarekin?

Akzioekin 5 milioi euro lortu nahi dira eta ekain hasieran milioia pasatua lortua zen. Ekain bukaerarako bi milioi terdi izatea espero dugu. 10.000 harpidedun berri lortu nahi ziren. 7.000ra hurbildu gara eta lehen

genituen 6.000kin, kopurua bikoiztu dela erraten ahal dugu. Guretzako harpidetzak koltxo garrantzitsua da.

Hilabeteotan jaso duzuen elkartasuna konpromiso ere bihurtzen da diru horrekin...

Bai. Langileok mezu hori hartu genuen gizartetik: guk hartu behar genuela ekimena egunkari berri bat sortzeko eta hori egin dugu. Orain, gizarteak manifestazioan edo martxoaren 13ko geldialdian erakutsi zuen borondatea konpromiso bihurtzeko tenorea da. Badi-rudi dena egina dagoela, baina hori ez da egia. Herriar bakoitzaren aportazioa beharrezko dugu.

“Herriarren aportazioa behar dugu, beraien elkartasuna eta borondatea egiazko konpromisoan bihurtzeko”

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugaramurdiako Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Eskerrik asko!!

Nafarroako Trikitixa Elkartea osatzen dugunok, honakoa adierazi nahi dugu:

Lehenik eta behin, eta Euskal Herriko Trikitixa Egunaren balorazio orokor bat eginez, pozik egoteko arrazoiak baditugu. Izan ere, Euskal Herriko Trikitixa Eguna Nafarroan antolatzeak erronka ez da nolanahikoa. Atzean gelditzen dira azken lau hilabetetako bilera eta eginbeharrak, ilusioz abian jarritako erronkak eman du berea.

Lehenengo aldiz ospatu dugu Nafarroan nazio mailako trikitixa festa; Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde eta Nafarroako trikitizaleen festa egin berri dugu Sakana, eta horixe da lehenik harro egoteko arrazoiak. Eskerrak beraz, Euskal Herri osoko trikitixa eskolei, honelako egun batean haien parte hartzea ziurtatzeagatik. Benetan eskerrik asko.

Ez hori bakarrik. Eskerrak Sakanari ere, Zierditi hasi eta Irurtzune-raino, udal, lantegi, den-da, taberna eta hainbatek emandako laguntzagatik. Baina bereziki norbait aipatzekotan, Sakanako gurasoak dira gure esker ona merezi dutenak. Aurreko egunetan eta egunean bertan egindako lanak ez duelako gutxiago merezi eta egun hau aurrera ateratzeko beharrezkoa izan delako haien laguntza. Eskerrik asko.

Aurtengo Euskal Herriko Trikitixa Egunak hala ere, izan du bere alde iluna. Egunaren bezperan eta egunean bertan Etxarriko sarreretan eza-

rritako kontrol polizia-lak hain zuzen ere. Ez da harritzeko; Sakandarrak «ohitzen» ere hasiak baitaude honelako jazarpenetara. Baina Nafarroako Trikitixa Elkartetik gure haserre adierazi nahi dugu horren inguruan. Ikusten denez Trikitixa Egun batek ere sumintzen ditu!

Gorabeherak tarteko, aurrera atera dugu eguna, zailtasunak zailtasun. Hutsegiteak ere eginen genituen noski, baina tira, ongi egindakoa gorde eta gaizki egindakoa ere bai, hurrengo batean ongi egin ahal izateko.

Aurrerantzean Nafarroako Trikitixa Elkartea lanean segitzeko asmoa du; Trikitixa eta panderak guztion gozamen bide izaten segi dezaten, herriko festa, jaialdi eta bestelakoan parte, alaitasun doinu eta nortasun baten parte izaten jarraitzeko. Nortasun eta kulturaren parte izaten jarrai dezaten, altxa eta dantza! Eskerriko asko Sakana, Eskerrik asko Euskal Herria!

Mikel MUNDIÑANO LARRAZA
(Nafarroako Trikitixa Elkartearen izenean)

Lesakako hauteskunde balorazioa

Alderdi gehienek egin duten moduan nik ere nere hausnarketa propioa egin dut pasa berri ditugun hauteskunde korapilatsu hauen inguruan. Arkatza hartu eta idaztea erabaki dut, ez bait dira nolanahikoak izan Lesakan hauteskunde

hauen inguruan gertatutakoak.

Hasieratik argi ikusten zen, estatu espainolak ezker abertzalea hauteskundetatik kanpo uztea zuela helburu. Bide horretan AUB eta herri plataforma gehienak utzi zituen lege kanpo, gurea (Herria Aintzinerak) hoietako bat zelarik. Egoera kezkarri eta antidemokratiko horren aurrean, alderdi politiko desberdinekin biltzea eta salaketa kanpaina bat martxan jartzea erabaki genuen. Alderdiekin izandako bileretan nahiz ka-lean egindako salaketetan argi utzi genuen hauteskundetan parte hartuko genuela. Estatu espainolak ilegal kartela jarri arren gure herria erakitzen jarraitzeko konprometua hartua dugu aspaldi, legalak edo ilegalak izan.

Ikusten den bezala egoera zail eta antidemokratiko horretan hasi ginen lanean. Baina gure harriurarako lan hori behin eta berriro oztopatzen saiatu dira bai estatuko espainola bere tresneri guztia bitartez, baita gure herritar batzuk ere, gezurra badirudi ere. Hauteskunde kanpaina ttipi-ttapa telebistan izan zen saio berezi batean, Onin plataformako kide batek (guri emandako hitza hautsiaz) bozka nulok ez zutela ezertarako balio bota zuen kameraren aurrean gure harriurarako. Traba bat gehiago! Ezin ahan-tzi ere saio berezi hortan Herria Aintzinerak Plataformak zentsura jaso zuela, Onin Plataforma elkarriketatu baitzuten, gero PNV eta akabo. Beste kolpe bat! Guzti honi buelta ematen nahiko lan ge-

nuenean eta hauteskundeak gainez zeudela, izugarriko kriminalizazioa jasan genuen futbol zelaian egin zituzten markoetak guri leporatuz. Ongi diseinatutako estrategia espainol, zikin eta faxista horretan Berti Gazteko jokalaria eta beste lagun bat jarri zituzten lanean mehatxupean, benetako eztabaida ekiditeko asmotan; hau da, gure herriak bizi duen zapalkuntza eta egoera antidemokratikoa hitz egin beharrean, paretak txuri mantentzearen beharraz hitz egiten jarri zuten herri erdia, lotsagarria eta uler-tezina!

Horrela iritsi ginen hauteskunde egunera, herriko plaza berde berde genuela. Jendeari aurreko egunetan telebis-taz etabarrez sartu zioten beldurra gutxi balitz, tori! Plaza armez inguraturik. Baldintza hoietan ospatu ziren hauteskundeak eta hala ere 293 bozka jaso zituen Herria Aintzinerak plataformak, izugarria! Nik pertsonalki oso balorazio positiboa egiten dut lortutako emaitzetaz, gainera seguru nago bozka hauek izango direla gure herriaren geroa ziurtatu eta Lesakan benetako aldaketa emateko balioko dutenak. Gutun hau probetuz Lesakako biztanleei lan egiteko gonbitea luzatu nahiko nieke, aurtengo gertatutakoak berriz errepika ez daitezen, gure ongi izatea baino askoz gauza gehiago bait daude jokoen.

Iban MAIA
ORMAZABAL (Herria Aintzinerako kidea)

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra 2003-06-11

«Ikasturte hasieratik iruditu zitzaigun San Francisco Javier ikastetxearen 25. urteurrena modu berezian ospatu behar genuela. Batez ere, bazkari bat antolatu nahi genuen, ikasle eta gurasoekin biltzeko eta ikasturte bukaerako ospakizunekin elkartu dugu».

«Gure ikasleak herrikoak dira, zentzurik onenean: herriko ikaslea hirikoa baino lasaia goa da».

Isabel IBARROLA
Ikastetxeko zuzendaria
D.Navarra 2003-06-11

«Medikuek berriz ere haustura bat dudala esan didate eta besoa sendatzeko lanean hasi naiz berehala. Ez dut eperik jarri nahi, badakit 29rako ongi ailegatzeko juxtu xamar ibiliko naizela, baina nire aldetik ahal dudana guzua egingen dut egun horretan prest izateko. Igan-dean atsekabe handia hartu nuen, baina nire lehendabiziko finala da eta jokatzeko ahale-ginak egingen ditut».

Aimar OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
D.Navarra 2003-06-10

• 11 GALDERA LABUR •



Juan TELLETXEA *Doneztebeko Erreka elkarteko presidentea*

Aizkolari, zinegotzi izandakoa, laxoa jokalaria, orain Errekako presidentea... zerbait ahazten dut?

Enpresa bateko langilea ere banaiz.

Hamar ofizio, hameka mixeria erra-na egia da?

Egia izaten ahal da, bai.

Kirol zinegotzi zinenean, egin gabe utzi duzun zerbait?

Seguru gauzak falta direla, baina eginahalak egin ditugu.

Zer da errexago, kanako enborra moztea edo herriko kirol talde gu-ziak gustora uztea?

Kanako enborra moztea.

Herri kirolerako afizioa galtzen ari da Malerrekan?

Igual bai. Zaharrek segitzen dute, bai-na gazteen artean ez da somatzen.

Aizkoran, desafioa nori?

Orain ez nago desafioa inori bota-tzeko moduan.

Bestetan Malerrekan zortzi erre-montelari profesional ariko dira.

Profesional izanik dirua irabazten da, eta laxoak ere badu zerikusia.

Bestak lasaia go pasatuko dituzu zi-negotzi izan gabe?

Seguru aski bai.

Orain Errekako presidente. Zer egi-tea gustatuko litzaizuke?

Aurrekoekin egindako lanarekin se-gitu nahi dugu.

Bestetan, kirola edo juerga?

Kirola pixko bat, gero juerga aunitz.

Zer falta zaie eta zer dute soberan Doneztebeko bestek?

Profesionalen arteko esku pilota partidak ez dira ekartzen, jende gutti joaten ze-lako. Kendu ez nuke deus kenduko.

GRUPO TANATOR O T A D E A

IRACHE

MALDAERREKA, S.L.

FUNERARIA

ZERBITZUAK

DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziria eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404

© 900 704704

bortziRUDI

BERA

KARTELAK

KAMISETAK

BISERAK

TXISKEROAK

PLANOAK

FOTOKOPIAK

KOLORETAN

ENKUADERNAZIOAK

PLASTIFIKAZIOAK

PAPERTEGIA

NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUAREKIN

Eztegara 26 behea

Tel.- Faxe: 948 63 15 21

JUENE - GAZTEAK

Alizate, 19-948630786 •BERA

ZENTRU

LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA

Nekane Ordoki Gonzalez

- ★ Ahazkopen zailtasuna ("erre" goizti ezana, "ceceo"-a...)
- ★ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ★ Irakurketa arazoak
- ★ Idazketa arazoak
- ★ Toteltasuna "tartamudeo"
- ★ Ahots arazoak
- ★ Arnasketa arazoak

646 894 332

BERA

LESKA

ADMINISTRAZIOA

Gobernu Ordezkaritzak hauteskundeetan izandako jarrera salatu dute

Bera eta Lesakako udal langileek sinatutako idatzian

ttipi-ttapa

Berako eta Lesakako udal langileek maiatzaren 25eko hauteskundeetan Gobernu Ordezkaritzak izan duen jarrera salatu dute idatzi batean, «*larritasun berezia duen gertakaria delako*». Normalean, hauteskunde mahai bakoitzean Administrazioaren ordezkaritza bat aritzen da lanean, Gobernu Ordezkaritzak izendatua, dagokion udalak proposatua. Baina honetan, eta aitzineko hauteskunde deialdi guzietan gertatu ez bezala, Ordezkaritzak berak zuzenean izendatu ditu 70 lagun inguru, udal erakundeei proposatu zituztenak ordezkatzeko.

Horrela, Bera eta Lesakan, udalek proposatutako funtzionario baina kendu zuten eta udal langileen ustez, ordezkapen hauek ez dira zoriaren ondorio izan: «*Gehiago erranen genuke, komunikabideetan argitaratu dena eta*



ARTXIBOKOA

Bera eta Lesakako udal langileek elkartasuna adierazi diete azken hauteskundeetan bere lanetik kendu dituzten bi funtzionarioei eta hurrengo hauteskunde prozesuetan beraien lanetara itzultzea eskatu dute.

lortu dugun informazioaren arabera, egiaztatu ahal izan dugu Nafarroako iparraldean eta erdialdean afektatuak izan diren pertsona gehienek zerikusia dutela ilegalizatutako Aurrekin edo euskal nazionalismoarekin zerikusia duten bertzeta talde legalekin. Gure ka-

suan, ELAko ordezkaritza sindikalak dira, 20 urte baino gehiagoko aintzinasunarekin».

Idatzia sinatzen duten Berako 12 eta Lesakako 7 udal langileen ustez, «*funtzionario hauen irudia larriki kaltekoa izan da, alegaziorik edo errekurtsorik aurreratzeko aukerarik izan*

gabe, eta pertsona hauek, nolabait, estigmatizatuak gelditu dira». Onartezina iruditzen zaie demokrazia batean funtzionarioen aukera politikoei buruzko datuak biltzea: «*Hori Konstituzioak onartutako askatasun ideologikoa eta elkartzeko eskubideen kontra doaie*».

LANA

Maiatzean 529 langabetu INEMen

Maiatz akabailan 529 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, apirilean baino 48 guttiagok. Nafarroan ere dextente beheiti egin du langabeziak, aitzineko hilabetean baino 774 lagun guttiago baitzeuden lanik gabe, 16.480 guzira.

Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 44 gizaseme eta 31 emakume eta 25 urtez goitiko 183 gizon eta 271 emakume zeuden langabezia maiatzean. Beraz, sexu eta adin sektore guzietan somatu da langabeziaren beherakada, apirilarekin konparatuz. Sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 293 pertsona. Industrian 155 langabetu zeuden, eraikuntzan 44 eta nekazaritzan 4, aitzinetik lanik egin gabeko 33 langabetuekin batera.

Apirilean 551 kontratu berri egin ziren eskualdean, horietatik 81 ziren mugagabeak.

© 948631076 • BERA

© 948630052 • Zalain • BERA

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Zalain
jatetxea
Zalain 104 • Tel: 948 63 79 47
Bera - Nafarroa

BERA

Hirigintzako Udal Plan Orokorra behin behineko onetsi da

Nafarroako Gobernuari herriko zeharbidea eskatu dio Udalak

Amaia eta Ainhoa

Udalak maiatzaren 22an egindako batzarrean behin behineko onartu zuen Udal Plan Orokorra. Chocarro eta Urmeneta arkitektoek joan den abenduan aurkeztu zuten proiektua eta horretan datozen urteetako urbanizazio arauak idatzita daude. Jendaurrean egon ondoren, 77 alegazio aurkeztu dituzte herritarrek jarritako epean (bertze bat epez kanpo). Alegazio hauetatik 40 onetsiak izan dira nahiz eta denak ez erabat. Orain Nafarroako Gobernuak Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentura bidaliko dute, behin betikoz onar dezaten.

Bertetik, Udalak Nafarroako Gobernuari Berako zeharbidearen jabetza eskatu dio Hirigintza Plana garatzeko erraxtasunak ekarriko dituelakoan. Izan ere, zeharbide honetan eragina izanen duen edozein obra egiteko, Nafarroako Gobernuaren errepide araudia jarraitu behar da nahiz eta bide hori herri erditik pasatzen den. Zailtasunak eta oztopoak ekartzen ditu modu honetan lan egiteak.



ARGAZKIA: AITOR

Ekainaren 4an pilotari buruzko solasaldia eskaini zen Kultur Etxean. Ricardo Baroja eskolak eta Labiaga ikastolak, Lesakako Batzoki elkartearen laguntzaz antolatutako ekimen honetan, pilota modalitate ezberdinei buruz solasean aritu zen Javier Bariain. Juan Carlos Otero pilotagileak bere lanbidearen berri eman eta pilota bat egiteko prozesuak azaltzeaz gain, eskuzko pilota bat ere egin zuen. Oinatz Bengoetxea Leitzako esku pilotariak eta Koteto Ezkurra Doneztebeko erremontelariak eskola eta ikastolako neska-mutikoen galderei erantzun zieten. Solasaldiaren ondoren, Bengoetxea eta Ezkurra autografoak sinatzen aritu ziren.

KIROLA

Yannick Corondel nagusi VI. Herri Lasterketan

Ekainaren 7an burutu zen Gu-
re Txokoa elkarrekin seigarren al-
diz antolatutako Berako Herri Las-
terketa. Proba nagusian, zortzi
kilometroko ibilbidean korrikala-
ririk bizkorrena Iparraldeko Yan-
nick Corondel beterranoa izan zen

(20'04"). Bigarren Fernando Etxe-
garai beratarra izan zen (22'53").
Aingeru Mindegia leitzarra izan
zen hirugarren (23'39") eta Jai-
me Etxegarai beratarra laugar-
ren (24'03"). Ramuntxo Lamothe
saratarrak proba utzi egin behar

izan zuen hirugarren itzulian. Ka-
detetan Jon de la Cruz beratarra
izan zen azkarrena sei kilome-
troak osatzen (19'31") eta Ibai
Iturria izan zen bigarren (20'04").
Infantiletan, Ander Etxezarreta
izan zen bizkorrena (6'40"), Mi-
kel Morcillo bigarren (6'49") eta
Iñaki Lopetegui hirugarren (6'53").

FLASH

Udal zergak ordaintzeko epea

Ekainaren 3tik uztaila-
ren 7a arte zabalik da-
go 2003ko 1. seihileko-
aren kontribuzioaren or-
dain-agiriak ordaintze-
ko borondatezko epea.
Ondoren, ordain-agiri
hauak exekutibo bidez
kobratuko dira, premia-
mendu erretegia, at-
zerapen interesak eta
gerta daitezkeen bertze
gastuak gehituta.

Berako Oihuan lanak aurkezten ahal dira

Urteroko moduan, San-
tesbena besten pro-
gramarekin batera, Be-
rako Oihua aldiakaria
banatuko da etxetan.
Bertan artikulatu idaz-
tera animatu nahi da he-
rritar guzietan. Lanak
nahi den gai eta lutzerako
izaten ahal dira, eta iru-
di edo argazki lagun-
duak joaten ahal dira.
Lanak aurkezteko epea
ekainaren 25ean akau-
tuko da. Ahal dela, for-
matu digitalean bidali-
ko dira (disketea edo e-
posta): *Berako Kultur
Etxea/Berako Oihua/
Eztegara 11/31780 Be-
ra*. Posta elektronikoa:
berakultura@telefonica.net

KORTA
Kortezak Orotan

ARAZTEGI METALIKOA
LAKORTATZEA METALIKOA

Berako Herri Lasterketa 2003ko 1. seihilekoaren kontribuzioaren ordain-agiriak ordaintzeko borondatezko epea.

2003ko 1. seihilekoaren kontribuzioaren ordain-agiriak ordaintzeko borondatezko epea.

2003ko 1. seihilekoaren kontribuzioaren ordain-agiriak ordaintzeko borondatezko epea.

Alzuri

Sukalde tresneria eta opariak
Landare eta loreak

Tfnoa: 948 630 370
BERA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

LESAKA

Tele-lanari buruzko informazioa emanen da Alkaiagan

Cederna-Garalurek antolatu du ekainaren 19an

Aitor AROTZENA

Alkaiaga industrialdean dagoen Bidasoako Enpresen Zentruan tele-lanari buruzko informazio bilerak egingen da, ekainaren 19an, ordezgunarekin, 18:00etatik aitzin. Cederna-Garalurek erakundeak antolatutako solasaldi honetan bideokonferentzia eta guzi izanen da, lan modu honen ezaugarri nagusietako bat erakusteko. Alkaiagan eta Kadereitan batera egingen diren solasaldiak batera segitzeko modua izanen da teknologia honen bitartez. Saio hau lanean nahiz langabezian dauden gazteei eta teknologia hauetaz baliatu nahi duten enpresei zuzendua dago.

XXXIII. Miguel Elizalde Memoriala

Ekainaren 8an burutu zen Miguel Elizalde zenaren omenez 33. aldiz antolatutako txirrindularitza lasterketa. Baserde elkarrekin antolatutako 60 kilometroko lasterketa sprintean erabaki zen eta bertan Peraltes taldeko Javier Ar-

mendia nagusitu zen, Irabiako Javier Etxarri eta Beola Motor taldeko David Olanguren aitzinetik. 113 txirrindulari abiatu eta 79 helmugaratu ziren.

Jone Fagoaga Munduko Kopan

Ekainaren 28 eta 29an Granadan jokatu den Skeet Olinpiko Munduko Kopan parte hartuko du Jone Fagoagak. Ekainaren 7 eta 8an Andaluziako hiriburu hortan egindako Nazioarteko Sari Nagusian nagusitu zen lesakarra eta maiatzean jokaturako Presidente Kopan bigarren izan zen.

Jubilatuak San Juan Xarrera

Ekainaren 24an San Juan Xarrera aterako da San Fermin jubilatutako mendi taldea. Oinezkoak 9:00etan abiatuko dira elkartetik eta autobusean doazena 11:00etan, meza aditzeko. Bazkaria Arantzako Burlada jatetxean izanen dute. Txartelak ekainaren 21 baino lehen hartu behar dira elkartean (20 euro).



ARGAZKIA: AITOR

Euskara jalgi hadi plazara izenburupean, euskalgintzaren egoera eta etorkizuna ezagutzeko asteburua egin zen Lesakan maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Lesakako Euskal Herrian Euskaraz eta Bai Euskal Herriari taldeek antolatua. Larunbat arratsaldean euskalgintzaren orainaz eta etorkizunaz solasaldia izan zen Kasinon. Igande goiz eta arratsaldean, liburu azoka egin zen plazan eta Egunkari berria aurkeztu zuen Herriko Etxeko arkupetan Edurne Elizondo kazetari beratarrak. Arratsaldean, «Herriak eta hizkuntza» literatur lehiaketaren sariak banatu ziren.



ARGAZKIA: AITOR

Urrezko Adina Klubaren barrenean, Urrezko eta Diamantezko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteak omendu zituzten ekainaren 5ean. Berez lau senar-emazte omentzekoak baziren ere, azkenean Joxe Mari Ameztotz eta Maria Ubirak bakarrik izan zuten posible omenaldira agertzea, beraien ezkontzaren 50. urteurrenean. Santiago Etxepeteleku-Estefania Telletxea, Ramon Andueza-Martina Errazkin (Diamantezko Ezteiak) eta Tellegiko Jose Mari Irazoki-M^a Carmen Irazoki senar-emazteek etxean jasoko dituzte sariak.

IRU BIDE
ERRETEGIN
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

ANIA
Janaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zafra
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

Isidro Ariztegik irabazi zuen XI. Gasna Feriako sari nagusia

Heldu den igandean eginen da Etxalarko IV. Trikitixa Txapelketa

Joseba eta Nerea

Joan den ekainaren lehenean izan zen Altxata Kultur Elkartek antolatzen duen Gasna FERIA Eguna. Hamaikagarren edizioa zen aurtengoa eta eguraldi ederak animatuta inoiz baino jende gehiago hurbildu zen plaza bazterrerara. Goiz goizetik hainbat artisau eta gasna egileen postuak ikusgai egon ziren eta hauen produktuak erosteko aukera ere izan zen. Eguerdia partean herriko trikitilariak eskaini zuten saioaren ondotik, gasna lehiaketaren sari banaketa egin zen. Aurtengoan sari nagusia herrian gelditu zen. Lehenago ere sari andana lortua duen Basateko Bordako Isidro Ariztegi izan zen gasna hoberenaren saria eraman zuena (kopa eta 120 eu-

ro). Bigarrena Berara joan zen. Iñaki Pikabeak eskuratu zuen kopa eta 90 euroko saria. Hirugarrena Amaierko Felisa Irungarainen gasnarentzat izan zen. Honen ere kopa eta 75 euroko diru saria eraman zituen.

Herriko gasnak ere saritu ziren eta hobere-na Irigoieneko Bordako Isabel Irazokiren gasna zela erabaki zuen epaimahaiak. Bigarrena berri- z Dolores Maritorenaren gasnarentzat izan zen.

14:30ak inguruan hasi zen 110 lagun bildu zituen herri-bazkaria eta ondotik Manolo Aroze-na eta Julen Zelaieta bertsolariak alaitu zuten bazkalondoa. 18:00etan herriko Andra Mari dantza taldeak eskainitako dantza-saioarekin akautu zen aurtengo besta.



ARTXIBOKOA

Laugarren trikitixa txapelketa eginen da ekainaren 22an, igandearekin.

Lerro hauen bidez Altxata elkarteak bere eskerrik onenak adierazi nahi dizkie egun hau aitzinera ateratzen lagundu zuten herritar guziei.

Etxalarko IV. Trikitixa Txapelketa

Ekainaren 22an eginen da laugarren aldiz haurrentzako trikitixa txapelketa. Lesaka Trikitixa eskolak antolatutik, 18:00etatik aitzin izanen da herriko plazan. 14 bikotek hartuko dute parte bi taldetan banaturik; alde batetik 7-12 urte bitartekoak, eta bertetik, 13-15 urte bitartekoak. Tikienek egin beharreko lana trikitixa edo porrusalda eta fandangoa edo arin-arina jotzea izanen da. Kox-



Antzerki arrakastatsua

Gasna Feriaren aitzakian Altxata baserriaren inguruko antzerki bat ekartzea erabaki zuen. Joan den maiatzaren 31n EBEL taldeko sei emakume baserritarrek hiru satech antzeztu zituzten Kultur Etxean "Baseritik Baserira" izenburupean. Jende parrasta bildu hau ikustera eta Kultur Etxea bete-betea ikusi ahal izan zen. Antzerkia baino lehen Egunkariaren inguruko bideo bat bota zuten.

korragoek, berriz, hiru pieza jo beharko dituzte, trikitixa, porrusalda eta fandango edo arin-arina. Herriko 2 bikote aurkeztuko dira. Irune eta Itxaso Elizagoien

ahizpak alde batetik eta Alaitz Danboriena eta Maitane Alzuguren bertetik. Trikitixa doinuez gozatzeko aukera aparta heldu den igandean herriko mugitu gabe.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

J. RAMOS

zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditud

Phone 948 631 342 BERA - Phone 948 637 172 LESAKA

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

HERRIKO

OSTATU - JATETxea

Industria kalea, 10 • 31002 BERA
Phone • NAFARROA

IGANTZI

Nafarroako IV. Mendi bizikleta jautsiera heldu den astean

Joan den larunbatz geroztik Udalbatza berria

Oskar TXOPERENA

Ekainaren 28an, larunbatarekin, jokatu da Igantzin Nafarroako IV. Mendi Bizikleta Jautsiera Txapelketa. Biltoki Elkartek zenbait beratar bizikletazalerekin batera antolatu duen kirol ekitaldi garrantzitsu honek iazko ibilbide berdintsua izanen du, hau da, Fraindik herrira bitartekoa. Ibilbidea egiterakoan antolatzaileek arrautuko duten arazo nagusia Ankulutsako ur biltegi ondoan egiten ari diren obrak izanen dira. Eguraldiak laguntzea bertzerik ez da behar partaidetza haundia izateko eta iazko 3 minutu eta 19 segunduko marka hausteko.

Udalbatza berria

Joan den larunbatean 12:00etan zuten hitzordua Herriko Etxean hurrengo lau urtetan Udalbatza osatuko duten herritarrek. Premiazko zenbait lanetan hasiak baldin baziren ere, larunbatean izendatu zi-



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Maiatzaren 31an Biltoki Elkarteko 25. urteurrenerako antolatu ziren jokoe-tan aritutako zortzi laukoteak ageri dira argazki honetan.

tuzten zinegotzi. Zortea opa diegu euren egin-kizunetan, beharko baitute. Zortea eta gogoal

Piszipina denboraldia

Joan den igandean zen hastekoa udako piszipina denboraldia. Bero galantak egin ditu ekainaren erdialde honetan eta gustora hartu izanen du jendeak freskaldia hartzeko aukera. Arduradunei dagokienez, maiatzaren 20an egin-dako bilkuran udalbatzak M^a Jesus Iguzkiagirreren eskutik utzi

zuen, bigarren urtez segidan, zainketa lana.

Berria

Oraindik bada astia euskarazko egunkari berriari, "Berria"ri alegia, laguntza emateko, baina diru bilketa egiten ari den taldeak ekainaren 10ean egindako bilkuran Igantziriko zego-kion kopurua aisa gaitzitu-ko dela baieztatu zuen. Izan ere, ordurako baziren bilduak 3.000 eu-rotik goiti eta bertze 1.000 inguru ere omen dira aginduak eta oraindik biltzeko. Gustora

egoteko arrazoiak badi-itu bilketan aritu den batzordeak, eskatu zaie-nean herritarrek erant-zun egin baitute berriz ere, Gara edo Ttipi-Tta-parekin gertatu zen be-zalaxe.

Dantza Taldea

Nonbait bada herrian barrena dantza taldearen arropa aunitz bana-tua eta taldea utzi ondo-tik itzuli gabea. Eskaria egin dute arduradunek arropa taldeari itzultze-ko. Hala egin nahi due-nak aski omen du Goie-txeara eramatea.

Biltokiren 25. urteurrena

Bertalde, urruti xa-mar gelditu bazaigu ere, ez genuke aipatu gabe utzi nahiko Biltoki Elkartek maiatzaren 31n ospatuta-ko 25. urteurren bes-ta. Goizeko 9ak alde-ra hasita, ekitaldiz jo-sitako eguna zuen prestatua elkarteko juntak. Goizean lau-nakako zortzi talde ari-tu ziren joku eta nor-gehiagotan (pilota, partxisa, txirindula eta herri kirol saioa) eta laukote hau izan zen azkenean garaile: M^a Jesus Iguzkiagirre, Aiert Retegi, Angel Ur-txegi eta Imanol Re-tegi. Ondotik 75 baz-kide inguru bildu ziren elkarteko aretoan baz-kaltzera eta bazka-london hitzaldiak ere izan ziren, zenbait baz-kidek batez ere sorre-rako harat-honatak eta gaur egun elkartek duen osasuna mintzagai izan zituztela-rik. Musika hasi baino lehen sariak ere bana-tu zitzaizkien juntan urte gehien pasatu di-tuzten bazkideei. Ilu-nabar aldera eguna-ren edertasuna gorai-patu zuten bazkideek eta aunitz izan ziren bazkidearen eguna maizago ospatzearen alde mintzatu zirenak ere.

BERRAZKUN
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako altzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

ARANTZA

Lehendabiziko mendi itzuliak erantzun bikaina izan zuen ekainaren 8an

240 mendizalek egin zuten hogeita hamabi kilometroko mendi buelta

Nerea ALTZURI

Jendetza ederra bildu zen joan den ekainaren 8an herrian. Goizean goizeko trumoi hots eta laino pilaren mehatxuek ez zituzten hurbildutako dozenaka mendizale uxatu. Goizeko zazpietarako, berrehundik gora mendi-goizale izen emateko hilaran zeuden. Antolatzailleen ilusioa ikargarria izan zen. Jakina zen guzia prestatua izanta, eguraldiaren kontra ezin zela deus egin. Berrogeita hamar inguru herritar, herri kaxkoan nahiz mendiko kontrol postuetan kokatu ziren, ibilaldia kontrolatu eta jan edari nahiz gisa ezberdinetako laguntzak eskaintzeko. Bortziriarrak, irundarrak, donostiarrak, berritxuarrrak, zestoarrak, lekeitiarrrak... izan ziren ibilbidea egiten. Zenbaiteri ibilaldia luzeagoa egin zitzaizen, lagun bat edo bertzeko lainoarekin galdu edo desbideratu baitzen; baina orohar, lai-



ARTXIBOKOA

Halako ikuspegiarekin ezin izan zuten gozatu Arantzako mendi itzulia egin zuten mendizaleek, egun lainotua suertatu baitzen. Ondorioz, batzuk galdu ere egin ziren eta Artikutzan eta Goizuetan ere agertu omen ziren. Behelainoa ez baita mendirako lagun ona!

noak egin zuen traba kenduta, denek gozatu zuten helmugan, herriko plazan emaniko luntzarekin.

Heldu den urtean ere berriz prestatuko da mendi itzulia. Antolatzailleek (eurek eskatuta eta lerro hauek probetuz eskerrak ematen dizkiete parte hartu duten guziei eta modu batean

zein bertzean laguntza eskeini dutenei.

Bestaberri eta komunioak

Aspaldiko urtetan egiten den moduan, bestaberri eguna igandean dela kontuan hartuz, lehendabiziko jautzartzea hartzen dute herriko haurrek. Korpus eguneko elizako aur-

tengo ospakizunean, herriko lau neska-mutilek hartuko dute jautzartzea: Lidia Indakoe-txea, Silbia Telletxea, Unai Arozena eta Markel Jorajuria. Meza eta ohiko prozesioa ere egiten da hainbat lekutan egiten den moduan. Ekainaren 22an, igandean, 11:30etan izanen da meza.

Berriari bulkaldia herrian

Herriko euskara batzordeak egunkari berriaren alde lanean segituko du urtean zehar ere. Orain arte, Berria euskarazko egunkari berrian sortzeko bidean, harpidetzak, material salmentak eta akziodunak izan dira herrian ere osagai.

Finkatutako akzio kopuruaren erditsua saldu da, bildu beharreko erdia biltzeko gutti falta delarik, (helburua 3.933 euro) eta aurrerantzean ere, bertelako ekimenak antolatzekeo ideiak daude euskara batzordean diru biltetarekin segitzeko. Edozein modutan, gogoratu 50 eta 300 euroko akzioak erosten ahal direla Berria diruz laguntzeko.



ALBERGEA
JATETXEA

© 948 634179
ARANTZA

zapatadenda.

kalotxa.

osagarriak.

konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

ALFONBRAK SALMENTA

PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

ITUREN

Ipuin eta marrazki lehiaketako sariak banatu zituen Ibintzak

Alazne Untxalo txapeldun eskolarteko bertso txapelketan

Iban ISASI

Ibintza Kultur Taldeak herriko eskoletako irakasleen laguntzaz, bigarren ipuin eta marrazki lehiaketako sariak banatu zituen joan den ekainaren 7an, larunbatean.

Maiatz osoan Ituren go eskoletako irakasleekin solastu ondotik, bigarren lehiaketa abian jarri zen, eta joan den urtean bezalatsu, 40 lan aurkeztu ziren.

Aurten 3 sailetan banatu zen lehiaketa: 1. eta 2. mailako neska mutikoak (marrazkia), 3. eta 4. mailakoak («Zirko bat izanen banu» gaia hartuta) eta azkenik 5. eta 6. mailako en artean (Gai libre). Haur hezkuntzako umeek aurtegoan ez dute parte hartzerik izan, baina sariak eman ziren egun berean Herriko etxeko sabaira agertu ziren adin horretako umeen artean, hauen sailerako zuzenduak ziren sarien zozketa egin zen. Zozketa honen bi-



ARGAZKIA: IBAN ISASI

Maitane Erasun, Iker Berregi eta Haritz Fagoaga. Behean Manex Ormazabal

dez Haritz Fagoaga lasagarra suertatu zen irabazle.

Aurtengoan ere, Ibintzako partaideek osatu dute gainerako sariak zeintzuri zegozkien aukeratzeko epaimahaia. Bozketa zail baten arabera, ondotik aipatzen direnak suertatu ziren irabazle:

1. eta 2. mailetan, Manex Ormazabal zubitarrak, 3. eta 4. mailetan, Iker Berregi aurtiztarra eta 5. eta 6. mailetan Maitane Erasun aurtiztarra.

Sariak banatu ondotik parte hartu zuten guziek berendua izan zuten Herriko Etxeko Sabaietan.



ZUBIETA

Trinitate Egunaren ondotik, Bestaberri

Leire ORTUOSTE

Igande honetan, ekainaren 22an, Bestaberri eguna izanen da. 12:30etan prozesioa egingen da, eguraldiak laguntzen badi. Arratsaldean, berri, herri guziarentzat berendua izanen da eta ondotik dantzaldia Agarralde akordeolariarekin.

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

Ekainaren 8an, Bertizko Natur parketik errotara bisita gidatuak izan ziren, taloaren prozesua erakutsiz eta iñauterietako argazkiak eta tresnen erakusketa azalduz.

Euskaldun berriak

Aspaldiko ohiturari segituz, aurten ere euskaldun berriak euskara ikastera etorriko dira etxe ezberdinetara.

San Juan bezpera

Urtero bezala plazan afaria izanen da San Juan bezperan eta ondotik, su saltoak.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA



GAZTANDEGIA

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

SALDIAS

San Juan festak ekainaren 20tik 24ra egingen dira

Lehenbiziko egunean herritarrek egindako pelikula ikusteko aukera izanen da

Ostirala 20

20:00etan ohiturako zopak Herriko Ostatuan. Ondotik, zine emanaldia, herritarren artean egindako pelikula. **Gauez** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Larunbata 21

9:00etan argi soinuak herrian zehar herriko trikitilarekin. **12:00etan** pilota partiduak. Infantilak: Juanenea eta J. Madariaga, Urrutia eta X. Madariagaren kontra. Gazteak: Urrutia eta Arregi eta Ezkurraren kontra. **18:30etan** herri kirolak. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia CICLON taldearekin.

Igandea 22

10:00etatik aurrera eta egun guzian alaituko du herria Doneztebeko BETI-ALAI txarangak. **13:00etan** aizkora apustua: Mindegia eta Larretxea; Olasagasti eta Nazabalen kontra. **18:00etan** pilota partiduak. Benjaminak: Juanenea eta Bereau; Iraola eta Madariagaren kontra. Afizionatuak: Elizalde eta Eskudero; Goizueta eta Elizalderen kontra. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

Astehena 23

9:00etan argi soinuak trikitilarekin. **11:00etan** herriko mus txapelketa.



ARGAZKIA: PEDRO URRUTIAK UTZIA

1968. urteko festetan, Roman Ugalde aizkolari lanetan, Sebastian Ezkurraren kontra egindako desafioan. Beheko argazkian, saldiastarrek pelikula grabatu zuten.

Goiz eta arratsaldez umeen jokuak karts eta gaztelu haizatuekin. **17:00etan** herriko plater hausketa txapelketa. **22:00etan** San Juan suak. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

Asteartea 24

9:00etan argi soinuak txistularekin. **11:30etan** Meza Nagusia, San Juan herriko patroia



ohorez. **12:30etan** pilota partiduak. Infantilak: Loiarte eta Olo; Mitxelena eta Barberenaren kontra. Gazteak: Iraola eta Betelu; Urtasun eta

jakaren kontra. **14:00etan** herri bazkaria Herriko Ostatuan. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTO akordeoilarekin.

Zure publizitatea
ttipi-ttapan
948 63 11 88

SALDIASKO OKINDEGIA

Eguneroko lana

Olasoa etxea • ☎ 948 615046

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 15etatik 19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxes: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitortpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

BERTIZARANA

Bertizaranako Eguna ospatu zen Legasan ekainaren 7an

Hirugarren edizioa bete du aurten elkartasun bestak

ttipi-ttapa

Ekainaren 7an Bertizaranako Egunaren hirugarren edizioa ospatu zen Legasan. Duela bi urte egun hau ospatzen hasi zirenean ere Legasa hautatu zuten besta egiteko, iaz Narbarten egin zuten eta aurten, berriz ere Legasara bueltatu dira.

Besta goiz goizetik

hasi zuten, ohikoa den moduangosari eder baten inguruan. Eta gosaltatik, denetik pixko bat izan zuten, haur, gazte nahiz adinekoek honelako elkartasun egun bati ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko: futbito txapelketa, piraguak, meza, herri kirolak, herri bazkaria... Goiz-arratsal-

dez ongi pasatzeko aukera nahikoa.

Eguerdi aldera, meza ondoren, herri kirol saioa izan zen plazan. Bakarren batek Legasa eta Narbarteren arteko lehia nahi baldin bazuen ere, Mitxel Aginaga prestatzaileak bi herrietako haurrak nahasirik paratu zituen. Halere, lehia gogorra izan zen

herritarren animoekin lagundutako bi taldeen artean.

BERREHUN LAGUN HERRI BAZKARIAN

Bitartean, Legasako plazan bazkarirako mahaiak prestatzen ari ziren gazteak. Izan ere berrehun bat lagun bildu ziren bazkaltzera, egun honek hartu duen

arrakastaren seinale. Oierregiko jendea oraindik ez da besta hontan parte hartzera sobera animatu, baina Narbartetik 90 bat lagun eta Legasatik ehunetik goiti bildu ziren mahaian, Asier Hernandorena antolatzaileak jakinarazi zirenez. Heldu den urterako hitzordua finkatuko dute, dudarik gabe.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA TB

Apeza akordeoiarekin eta emakumeak abesten, emanaldi ederra eskaini zuten Legasako emakumeek.



UDALBILTZA®

EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

UDALBILTZA®k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: HURBILTZEN

www.udalbiltza.info.com



INGURUMENA


Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatu dute Bertizen ere



Ekainaren 8an Bertizko parkean sarrera librea izan zen

ttipi-ttapa

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta, urtero bezala hainbat ekitaldi egin dira Bertizko Jaurerrian. Ekainaren 5ean, inguru honetako eskoletako ikasleek ingurumenari buruzko tailerretan aritu ziren eta Xaki magoarekin ere gozatzeko modua izan zuten. Ekainaren 8an, berriz, sarrera libreko eguna izan zen Bertizko Jaurerriaren natur parkean. Emanaldi eta animazio ugari izan zen goiz eta arratsaldean natur parkearen zelaian: Iturengo joal-dunak, txistulariak, trikitixa Trikidantz taldearen eskutik... Taloakegiteko eta saltzeko postua ere paratu zutenez, bisitari aunitz hortaz baliatu ziren eguneko otordua egiteko. Bertze urteetan baino jende gehiago izan zela Bertizen egun hau ospatzen. Izan ere, zelaian bata bertzearen ondotik izaten ziren musika eta kultur emanaldiez gain, bertze aukerak ere baziren. Aizkolegiko gaina mikrobusez bisitatzeari, Natur parkeko lorategia ikustea edo BKZk antolatutako kirol jardueretan parte hartzea. Batzuk globoan igoera egiteko eta Bertiz eta ingurua aireko ikuspegitik begiratzeko aukera ere izan zuten.



E un r h
t r n r r n

zk n ur t t n C ur l n h z kun h n n l un u

ut n r ts n uz n k nf ntz sk rtu n h u u.

Et k nf ntz h rr r ntzuc ns tz k l n n r r .

un tk un r ur h l uru l tuz un r h k

t .

www.ingurumenaren-eguna.ez

E un r h
t r n r r n

NAFARR AK
RUR L KUTXA

GOIZUETA

Hainbat baserritako bideak galipotatzeko dirulaguntza lortu da

360.000 euroko aurrekontuan erdia Nafarroako Gobernuak ordainduko du

Esteban AROTZENA

Alkainzuriain, Domiña-Domíñazpi, Aitase-megi, Kapero-Rezola, Attaborro eta Patanza-laingo bideak galipotatzeko 360.000 euroko proiektua aurkeztu zuen udalak Nafarroako Gobernuan duela hilabete batzuk, eta orain, jaso zitekeen erantzunik hobereena ailegatu da herrira, eskaera onartu baitu Iruñeak, dirutzaren erdia berak ordainduko duela esanez.

Dagoeneko aurreratu daiteke, baserri askoren iraupenerako hain garrantzitsuak diren galipotatzeko lan hauek ondorengo hilabetetan bu-

rutuko direla.

Pilota gozo txapelketa

Umore Onak antolatuta pilota gozoarekin jokatu den txapelketa izena emateko epea lehengo larunbatean bukatu zen, eta partidak berriz, larunbat honetatik aurrera hasiko dira. Gauzak bere bidetik jotzen baldin badira, Amabirjin bezperan jokatu da finala.

Eskulan ikastaroa

Neguaz geroztik eskulanen ikastaroan aritu diren emakumeen «obrak» ikusgai egon zi-



ARGAZKIA: ESTEBAN

Argazkian ageri diren hamabi neska-mutiko hauek lehen jaunartzea egin zuten ekainaren 8ko elizkizunean.

ren Ganbaran ekainaren 7-8ko asteburuan. Herri guzia handik igaro zela esan daiteke, baita ederki harrituta gelditu ere ikusleak han ikusitako lanen kalitatea rekin.

Judo erakustaldia

Ane Zinkunegik zuzentzen duen judo eskolako ikasleen kurtso bukaerako erakustaldia ostiral honetan izango da herriko plazan, 17:00etatik aurrera.



ARGAZKIA: ESTEBAN

Hainbat eta hainbat herritar igaro zen Herriko Etxeko Ganbaratik, emakumeek egindako eskulanen erakusketa bisitatzeraz.

ARESO

Lehen jaunartzea egin zuten hiru neska-mutikok ekainaren 8an

Mikel Goiaingeruaren bisita izan genuen ekainaren 1ean

Juana Mari SAIZAR

Garaian garaikoak, ikasturtearen azkeneko ostikoak, lehenbiziko berro handiek sortzen dituzten nekeak, eguraldi onak eta politikoki, transizioa, udaletxeko

lanak geldialdi baten dauden bitartean, elizako gaiek protagonismoa hartzen dute. Ekainaren 1ean, Mikel Goiaingeruaren bisita izan genuen eta gaixoek bere etxeetan agur-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Areson katekesia egiten duten neska-mutikoak ageri dira argazkian. Larunbatean inguruko beste herri batzuetako ikasleekin bildu ziren Gorritin.

tzeko aukera izan zuten. Ekainaren 8an, Xabito, Mikel eta Josunek lehen jaunartzea egin

zuten eta ikasturteari bukaera eman nahiean, Basaburua, Araitz-Betelu, Lekunberri, Leiza

eta Aresoko umeak Euskal Katekesi Eguna ospatu zuten Gorritin ekainaren 14an.

LEITZA

San Juan bezperako afarian ehundako herritar espero dira

Plazaola aldizkarirako lanak ekainaren 30erako aurkeztu behar dira

Mikel ILLARREGI

San Juan bezperan egitarau zabala izanen da aurten ere. 18:00etan umeen ingurutxoak egingen da plazan. Ondoren txistorra ogitartekoak eta edariak banatuko dira umeentzat. 21:00etan herri plazan afaria izanen da, norberak ekarrita. Ardoa, ogia, kafea, kopa eta pu-ruak bertan izanen dira. Mahaiak norberak jasotzea derrigorrezkoa da. Incansables txar-angak afalondorea alaituko du. Ondoren kalejira. Gauerdian sua piztuko da.

Plazaola aldizkaria

Urtero ohi den legez, pestetako egitarauarekin batera, "Zerbatte kontatzeko..." aukera ematen du Plazaola aldizkariak. Idatzi hauek ekainaren 25a baino lehen Aurrerako buzoian sartu behar dira idazlearen izen-abizenekin, nahiz eta aldizkarian, nahi bada, ezizen batekin agertu. Bestaldetik, baina honekin lotuta, aipatu dugun aldizkari honi azal berri eman nahian, lehiaketa antolatu da aurten ere. Hori gaia Leitzako Fes- tak izanen da. Leitzen bizi denak har dezake parte eta idatziak beza- la, ekainaren 25 arte izanen da aurkezteko epea. Egurrezko 2 cmtako listoi batez inguraturik aurkeztu behar dira eta



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Kultur astean, orokorrean dena ongi eta politta gertatu bazen ere, aipagarri landaretzari buruz, Jagoba Rekondorekin izaniko tertulia. Plazako erakusketak ere jendetza handia bildu zuen.

50x65 tamainakoa, lau koloretan.

16 urtetik beherakoek honako testu hau jarri behar dute; Plazaola-Leitzako aldizkaria-25. zenbakia. 17 urtetik gorakoek; Leitzako 2003-Tiburtzio Donearen festak -25. zenbakia.

Lanarekin sobre bat non, lanaren atze aldean ezarriko da gainazalean eta barruan norberaren datoak.

Ekainaren 30ean, aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat egingen da Aurreran.

Aurrera "erregionalera"

Nahiz eta azkeneko partidua irabazi; 2-0, Corellanoren aurka, azken momentuan, UPNA eki- poarekin berdindu du puntutan (45 bakoitzak)

eta elkarren arteko partidutan bata besteari sartutako golek eraba- ki dute AURRERA erre- giolaneko 1. mailara jais- tea. Eta hau guztia gol batengatik. Behin baino gehiagotan kategoriaz igo eta baita jaitsi ere egin du ekipo honek. Preferentean, orain, hi- ru urte egin ditu. Den- boraldi honetan, lehe-

nengo itzulian 13 pun- tu besterik ez zituen es- kuratu. Bigarrenean be- rriz, 32, guztietatik ia gehien atera dituen. Sailkapen orokorrean 16.a gelditu bada ere, esan beharra dago, sei- garrenetik hiru puntura geratu dela. Iaz 33 pun- turekin mantendu zen, aurten 45 eta behera. Hau marka...

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritisa, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsalde 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

LANA

Astizko Mentrokillo kobazuloetan lan egiteko deialdia

Larraun ibarrean dagoen Astitz herrian, Mentrokillo kobazulo-ak egokitzeko proiektuaren sustatzaileek, horien erabilpen turistikoa bultzatuko duen kudeatzailea kontrata- tzeke lehiaketari ekin diote. Lanpostuaren helburu nagusia Men- trokillo kobazuloen era- bilpen turistikoa bul- tzatzeko eta kudea- tzeke plan orokor bat egitea izanen da.

Lanpostu honetan hasiko den pertsonak Mentrokillo Kobazulo- en erabilpen turistikoa sustatzeko proiektua- ri ekitake ekarriko di- tuen ondorio guztien ardura izanen du, bai ekonomia eta finantza eremuan, bai eremu komertzialean baita gi- za baliabideen kudea- ketan ere.

Lanpostuan aritze- ko unibertsitateko titu- lua izatea ezinbeste- koa da. Formazio osa- garria aintzat hartuko da, baita ekonomia eta finantza kudeaketan, RRHH kudeaketan, Marketina eta kudea- keta komertzialean, In- gurugiro eta Turismo gaietan duen espe- rientzia ere. Euskaraz jakitea ezinbestekoa da (idatziz eta ahoz).

Interesa dutenek curriculum helbide honetara bidali behar dute ekainaren 27ko 14:00ak baino lehen ("Cuevas de Astitz" erreferentzia): Plazao- la Partzuergo Turisti- koa, Plazaola kalea 21, 31870-Lekunberri.

ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

Zugarramurdiko errota berrituaren inaugurazioa egin zen ekainaren 5ean

Ospital zaharrean Sorginen Museoa moldatzeko hitzarmena sinatu da

Margari eta Koro

Ekainaren 5ean egin zen errota berrituaren inaugurazioa. Lau paretak bakarrik utziz, etxe guztia berritu behar izan zen, eta horrekin batera presa eta inguruko garbiketa sakona ere egin zen. Orain errota huni eman zaion funtzio bakarra etxe bizitzarena da (3 logela, sukalde eta komuna) eta intentsioa etxe rural gisan gestionatzea da. Alkatetza eta zinegotzietatik aparte Nafarroako Gobernuak eta Cederna-Garalureko ordezkariak egon ziren eta baita udal arkitektoa ere. Ekitaldi hau profitatu zen Ospitala berritzeko proiektua sinatzeko.

Ospital zaharrean sorginkeriar buruzko museoa egiteko elkar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Zugarramurdiko udaleko, Nafarroako Gobernuak eta Cederna-Garalureko ordezkariak, errota berrituaren aitzinean.

lan hitzarmena sinatu zuten Zugarramurdiko Udalak eta Nafarroako Gobernuak Komertzio eta Turismo Departamentuak. Hitzarmen

horren arabera, Nafarroako Gobernuak 38.141,38 euro emanen dizkio Udalari, ospital zaharra moldatzeko obra proiektua idazteko

eta erabilera turistikoarekin emateko. Proiektua idazteko aurrekontua 42.379,31 eurokoa dela kontuan hartuz, %90 lruñetik ordainduko da.

FLASH

Janari bilketa

Finitu da Urdazubi eta Zugarramurdiko elize-tan egin den janari bilketa. Antolatzaileak pozik agertu dira 574 kilo janari biltzea lortu delako, eta Ttipi-ttapa bidez beren eskerronak igorri nahi dute parte hartu duten guztiei.

Mikel Dalbret Alemaniako telebistan

Iduri duenez Mikel D'Albret margolariaren fama Alemaniara ino ailegatu da: Alemaniako lehen kateko telebista Barantxeko-bordan izan zen ekainaren hasieran D'Albreten lanari buruzko grabaketa egiten.

Udaberriko Bira

Aurtengo "Udaberriko Bira"ko seinale izan du gu Zugarramurdin: Ekainaren 7an Akelarrenean "SPY KIDS" filmaren emanaldia egin zen.

Gaupasa

Ekainaren 21ean egin den gaupasan Ameba, More, Sorkun eta Nekin musika taldeak ariko dira. Antzerkian «Deabru beltzak».



Gierresena

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**

gaztelu scl
iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

☎ 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 **LEITZA**



ARMUA

Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km

☎ 948 599 131 - **URDAZUBI**



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

☎ 948 581807 • 948 581853



Iturlandeta, 6 • ☎ 948 63 02 40 • **BERA**

DROGUERIA
MOLINERO

DROGERIA
LURRINGEGIA
OPARIAK

2.000 kolore

baino gehiago lortzen ahal duen makina

10 minututan

zuk nahi duzun **kolorea**
Profesionalentzat
prezio berezia

BAZTAN

Erratzuko San Pedro bestak ekainaren 27tik 30era egingen dira

Munduko txapeldunen arteko pala motzeko partida jokatu da larunbat arratsaldean



Azken urteetako Sanpedroetan ohikoak bihurtu dira herritarren arteko desafioak. Batez ere pilotan aritzen baldin badira ere, duela hiru urte aizkoran ere aritu ziren. Ea aurtengoan zer plantatzen den!

Ortzileria 27
Haurren Eguna

11:00etan japoniar bonbak. **11:30etan** karts eta gaztelu puzgarriak. **12:00etan** txupinazoa eta ezkil jotzea. **13:00etan** haurren bazkaria. **15:00etan** karts eta gaztelu puzgarriak. **18:00etan** Heritz Magoa. **21:00etan** Baztan zopak Kastonean. **00:30etan** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Launbeta 28
10:00etan argi soinuak. **12:00etan** postre eta pintxo lehiaketa.

18:00etan pala motzeko pilota partiduak: Lehenik, Nafarroako txapelketaren finala gazte mailan. Gero, Munduko txapeldunen arteko partidua. **20:00etan** kantaldia plazan. **22:00etan** mutildantzak. **23:00etan** kontzertua herriko plazan: UFESTUEK. **00:30etan** Gaupasa TRIKIDANTZ taldearekin.

Igendia 29
San Pedro Eguna
10:00etan argi soinuak. **11:00etan** Meza Nagusia, udaleko ordezkarien partehartzearekin.

12:30etan hameketa-koa. **18:00etan** Ginkana. **19:00etan** bertso-poteoa, BIZKARGAIN fanfarrearen laguntzarekin. **20:00etan** dantzaldia GOSPED taldearekin. **22:00etan** mutildantzak. **23:00etan** su artifizialak. **00:00etan** dantzaldia plazan GOSPED taldearekin.

Astelehena 30
10:00etan argi soinuak. **11:00etan** esku pilota partida Gorostapolon. **14:00etan** zikiro jatea, BIZKARGAIN fanfarreak alaiturik. Magra, ogie eta ardoaren zozketa. Txartelak herriko ostuetan salgai, asteazkena 25 baino lehen.

20:00etan dantzaldia FRANTXISKOREkin. **22:00etan** mutildantzak. **00:00etan** dantzaldia FRANTXISKOREkin, eta Gaixoak gu... biler!!!

**ETXEBERRIA
OSTATUA**

Ongi pasa
herriko
bestak!

© 948 453013
Karrika Nagusia 12
ARIZKUN

**Albantzenea
OSTATU-DENDA**

Santi Dendarieta

Albantzenea Etxea, ERRATZU · Tfnoa: 948 45 31 12

Ostatua

Herriko Plaza • © 948 453118 • ERRATZU

**ZUBIPUNTA
OSTATUA**

Besta onak
opa dizkizuegu

© 948 453248
ERRATZU

Okindegia

Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN

- Ogi artisauna, egunekoa eta txapeta

JAIETXEAN

- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilan erretako jakietan

Ordezkari indutribal - Tfnoa: 948 45 34 03 - 31713 ARIZKUN

**ALEMAN
zerrategia**

- Teilaturako estrukturalak (douglas, pinua, haritza)
- Tarima
- Portxeak tamaina egokian

Frantziarako errep. z/g
ERRATZU
© 948 453173

BAZTAN

Arizkungo San Juan bestak ekainaren 20tik 24ra

Igandean mutildantza ospatuko da, hainbat herrialdetako dantzarekin

Ortzileria 20

12:00etan besten hasmenta. Ondotik aperitifia **12:30etan** txopo eta bandera goratzea herriko txistulariekin. **14:00etan** bazkaria txopo goratzaleendako. **17:00etan** herri desafioa: hiru talderen norgegiagoka. **20:00etan** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. **21:30etan** Baztan zopak. **24:00etatik** aitzin dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

5:00etan ziztor-jatea.

Larunbeta 21

Haurren Eguna

10:00etan dianak. **11:00etan** haurrendako jokoak. **14:00etan** haurrendako bazkaria. Ondotik jokoak. **17:00etan** antzara jokoak. **19:00etan** pilota partida. **22:00etan** mutildantza eta gaita. **24:00etan** dantzaldia: JALISKO BAND. **5:00etan** zingar jatea.

Igandea 22

Mutildantza Eguna



Kirolak beti indarra izan du Arizkungo bestetan. Hamar urte inguruko pala txapelketako irudi bat. Kirolak beti indarra izan du Arizkungo bestetan. Hamar urte inguruko pala txapelketako irudi bat.



ARGAZKIAK: JUAN KRUIZ IRIARTEK UTZIAK

Ezkerrean, duela hogeita
Eskuinean, duela bi urte-

9:30etan ibilaldia eta dantza karriketan barrena. **11:30etan** mutildantza, Sauts jauziak, herrikoi dantzak. **14:30etan** bazkaria, kantuak, bertsolariak, irri-dantzak. **17:30etan** dantza kantuz, Pirinio dantzak, herriko dantzak. **22:00etan**

mutildantzak eta gaita. **24:00etatik** aitzin dantzaldia INAZKIREKIN.

Astelehena 23

San Juan bezpera

Zikero jate eguna

10:00etan dianak. **12:00etan** mus ineztu-

re. **14:00etan** zikero jatea txarangarekin. Ondotik herri poteoa. **21:00etan** San Juan suak eta ezkil jotzea. **22:00etan** sorginen antzerkia. **22:30etan** mutildantza eta gaita. **24:00etan** dantzaldia MIKEL akordeolariarekin.



SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN



Asteartea 24

San Juan Eguna

10:00etan dianak. **11:00etan** Meza Nagusia. Ondotik mutildantza eta luntxa. **16:00etan** plater tiraketa. **19:00etan** kantaldia. **20:00etan** dantzaldia MIKELekin. **22:00etan** mutildantza eta gaita. **24:00etatik** aitzin dantzaldia: MIKELI. Txopo

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
© 948 453310 - 948 453375 • Faxe: 948 456201
Ordoki Auzoa • ARIZKUN

BERRO-BIDE
Nekazaritza eta industria tresneriaren konponketa eta salmenta
© 948 453425
ARIZKUN

ORDOKI LIKOREAK
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
ERRETEGIA
Parrilan egindako haragi eta arrainak

DOLATXEA OSTATUA
Bestak ongi pasa!
© 948 453002 • ARIZKUN

ARIZKUN zerrategia
➔ Zerrategia
➔ Zurezko teilatuak
© 948 453 304
Dantzarineako errep.
ARIZKUN

BAZTAN

Elizondo eta Elbeteko zeharbideko hirigintza lanek 1,4 milioi euroko aurrekontua

Ur sareak berritu, argindarra eta telefonoa kanalizatu eta propano gasa lur azpitik banatuko da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide departamenduak Elizondoko (Santiago karrika) eta Elbeten barna pasatzen den N-121-B errepideko hirigintza lanak egiteko proiektua onartu du. Aurrekontua 1.470.679 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak 520.712,73 euro ordainduko ditu. Gainerakoa, Balleko Udalak ordaindu beharko du.

Lan hauekin, edateko uraren banaketa sareaz gain, urzikinen eta euritako uren saneamendu sareak berritu nahi dira, propano gasaren banaketa sarea egin, argindar eta telefono sareak kanalizatu eta argiteri sarea berritu nahi dira. Ondotik, zeharbide osoa zolaberri-

tuko litzateke, bidea bera eta espaloiak. Bideari dagokionez, gaur egungoaren gisakoa izanen da, ibilgailuentzako 9,5 metro zabalera bidea utziz eta bi aldeetan espaloiak eginenez, metro eta 1,15 metro artekoa alde batean eta metro terdi eta hiru metro terdi artekoa bertean. Proiektuak gaur egun dauden aparkalekuak errespetatzen ditu, baita lorategi eta zuhaitziak ere.

Udako Zinea

Udako zinea antolatu du aurten ere Kultur Zerbitzuak, azken urtetako ohiturari eutsiz. 22:30etan Merkatu Plazan izanen dira emaldiak, astearte eta ortzegunetan. Agendan emanen dugu pelikulen berri.



ARGAZKIAK: BAZTAN IKASTOLAK UTZIAK

Baztan Ikastolak, maiatzaren 24tik 30era, «Aisialdia eta kultura» izenpean kultur astea ospatu du. Gernika, Bermeo eta Mundaka ezagutzeko ibilaldia egin zuten. Hurrengo astean 4., 5. eta 6. mailetako ikasleek liburuak ilustratzeko tailerra burutu zuten «Mattin» marrazkilariak zuzenduta. Tailer hau Asier Irigoien Sainz zenaren familiak babestu zuen bere oroimenez. Gai-nontzeko ikasleek ekintza desberdinak izan zituzten (Oteiza Museoa bisitatu, ipuin kontalaria, Urtxintxa taldeko jokoak, herri kirolak). Haur Hezkuntzakoak Senperera eta Larunera joan ziren. 1. 2. eta 3. mailetakoak Donostian «Anna Luise eta Anton» pelikula ikusi eta itsasontziz ibili ziren. 4. 5. eta 6. mailetakoak Lekarozera ibilaldia egin zuten. Gurasoek ere hiru ekintzetan parte hartu zuten: ibilaldia, erlajazio saioa Ana Kariñenak bideratua eta udan irakurtzen ahal diren liburuen komendioa hitzaldia, Osiok emana.

*Eskisaroi
jatetxea*
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

BURKAITZEA
ostatu
erretegia
Zugararmurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI

asnáp me
servicio completo de la propiedad y gestión empresarial

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igeltseroak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asarotamendua
- Diru-laguntza erberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta zituerpenak

DONOSTIA
Rúa San Martín, 4. beheko
Telef: 948 431833 / Fax: 948 431830
info@asnápme.com

ELIZONDO
Santiago, 51. beheko
Telef: 948 580 504
info@asnápme.com

BERNIA
Santiago, 3. beheko
Telef: 948 363308 / Fax: 948 363309
info@asnápme.com

ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
☎ 948 45 20 88

SENPERE

Jondoni Petrikari bestentzat programa aberatsa prestatu du besta komiteak

Aurten azienden primak ospatuko dira asteartearekin

Franck DOLOSOR

Jondoni Petrikari herriko bestentzat programa biziki aberatsa prestatu dute besta komiteko gazteek. Erearoaren 27an, zikiroa ospatuko da eta biharamunean eguerditan herriko gakoak gazteeri emanen diozkate hautetsiek. Egun guziz, ostatuak ddastaketak prestatuko dituzte eta trikitilariak aditzen ahalko dira karriketan barna. Igandean, euskal indarjokoak, mutxikoak eta Arrantza-leak taldearen kantaldiaren ondotik, Xabaltx eta Xitoak taldeen kontzertua iraganen da. Uztailari ongi etorria emateko, asteartean, kabalaren primak eginen di-

tuzte errugbi zelaiaren ondoan. Senpereko behi, idi, eta miga ederrenak ikusten ahalko dira bi urtetarik behin ospatzen den besta huntan. Senpereko besten ondotik, Amotzekoak etorriko dira uztaila erditsuan. Zikiro baten ondotik, Niko Etxart, Xibero-ko aitaxi rock'and'rollen kontzertua iraganen da Amotzeko pilota plazan.

Euskal nortasun agiria

Udalbitzak euskal nortasun agiriak banatzen segitzen du. Agiri hauek Senperen berean egin daitazke ekainaren 21 eta uztailaren 19an Postetxean izanen diren permanentzietan.



ARGAZKIA: MIXEL MENDIBURUK UTZIA

Aurten laugarren aldiko Kantu Zaharren Eguna uztailaren 13an Ibarrun Inharrean iraganen da. Hainbat kantu zahar errepasatuak izanen dira. Izen ematea Senpereko Turismo Bulegoan. Tel:0559541169.



ARGAZKIA: FRANCK

Erearoaren lehenean Euskal Selektzioaren eguna ospatu zen herrian. Aimar Hirigoi, Inaxio eta Inaki Perurenak balentria ederrak egin zituzten. Euskal Herriak bere kirol selektzioak behar dituela eskatu zen egun hortan.

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

bentamiguel
denda, jantziak eta osagaiak

Ongi zaindutako sukaldaritzak
Menuak aukeran

Taldea
Ukarrak
Jantziak
Udalategia

Ibardingo Lepoa • © 948 631209

MARTIKO S.A.
C/Alameda 11, 48013 Leizor (Bizkaia)
Tel: 948 625016 • Fax: 948 625036

MARTIKO
Abatekietan
adituak eta arituak

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angelak	Erilaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakziak
Pilareak	

'Abujardada' Mazorra
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

AZKAIN

Bateraren mozioak arrakasta zabala du bainan ez osoa

Herriko bortz herritarren iritzia bildu ditugu

Ihintza, Angela eta Eneko

Aste honetan jakin nahi izan dugu Bateraren mozioak nolako arrakasta izan zuen. Horregatik 5 pertsona hautatu eta elkarrizketatu ditugu laburki beren iritzia eman dezaten.

Batera mozioaren eskakizun nagusia erreferenduma da. Departamendua, laborantza ganbara, unibertsitatea eta euskararen ofizialtasuna izango litzateke aztergai galdezketa horitan.

SABRINA BERROUET

ORDUAN elkarteko kidea

Bateraren mozioaren printzipioa, jendetza gehien goa eta hautetsi askoren sustengua biltzen dituen puntu ezberdinak hartzea omen da. Gure ustez, mozio hori osatzeko eta jendea mobilizatzen duten puntu guztiak kontutan hartuak izateko, Euskal preso politikoaren arazoa, hala nola Euskal presoak Euskal Herriratzeari sartu behar da. Arazo horren inguruan gauza asko egiten dira: manifestaldiak, elkarretaratzeak, sinadura bilketak baita beste ekintza asko. Aldarrikapen horrek betidanik jendea asko mobilizatu du eta hautesi askok sustengua eman dio. Printzipioa guztiz erres-



JEAN LOUIS LADUCHE

Herriko auzapeza

Uste dut gaurregun departamenduaren eskakizuna hedatu dela gizartean. Orain arte hautetsiek eramaten zuten eskakizunari bertze talde batzu lotu dira eta hori ongi da. Bainan ez da bakarrik departamenduaren gaia Bateraren mozioan. Uste dut Bateraren eskakizunak indarra hartzen ari direla eta bere alde ezarriko diren indarra hartuko dutela ere. Indar hori bazen jadanik bainan gaur plataformarekin azaldu da. Eta oraitik aitzina indar hori ez da apalduko eta nahi eta ez hautetsiek hautu bat egin beharko dute erreferenduma horri buruz.



MAYA RYBALKA

AZKAIN BERRI
zerrendako hautetsia

Mozio horren alde naiz ehu-neko ehun, lau puntuentzat. Denek garrantzitsuak baldin badira ere lehentasuna emango nioke hizkuntzari, Euskarak doakion tokia hartu behar baitu orain. Espero dut Sarkozy Jauna ohartuko dela aldarrikapen horiek garrantzitsuak direla guretzat. Erreferendumen ideia bikaina da.



ALAIN CHARRIER

IDEKI zerrendako hautetsia

Lehenik Euskal Herri departamendua egin nahi dugularik ez ditugu berriz erai-ki nahi jadanik existitzen diren estruktura. Gure asmoa biztanleekin eraman behar den lana hurbiltasun gehiagorekin egitea da. Pentsatzen dut adibidez diru banaketa hobeagoa izanen litzateke departamendu horrekin, orain harte ez baita orekatua Euskal Herria eta Biarnoaren artean. Uste dut ere Euskal Herriak nortasun azkarra duela eta hortarako gure eskakizun aintzinean erantzun egokiagoak ekarriko litzekela departamenduak, hizkuntzarentzat adibidez. Bainan ez dugu jendea baztertu nahi, Euskal Herri departamenduak ez luke Euskaldunen departamendua izan behar bakarrik. Unibertsitatea ere eskakizun garrantzitsua da. Lurralde Koherentzia Eskeman ari naizenean ikusten dut lan plataformak sortu nahi direla eta hortarako unibertsitateak segitu behar du, hark baititu sektore batzu dinamizatzen ahal.



PATRIZIA TELLETXEA

DEMO taldeko kidea

Edozoin bide ona da aldarrikapenen entzunarazteko. Demo taldearen bidea desobedentzia zibilarena da. Bainan bide guzkiek badi- tuzte beren mugak baxotxa bere aldetik ari baldin bada. Batak ere bere mugak badi- tu, hortarako denek indar- rak batu behar ditugu gure boza entzuna izateko.



petatua izateko, eskatzen dugu aldarrikapen hori Batera mozioaren puntu bat izatea. Euskal Presoak Etxera!




udana
sasne

SCC-02-0199

Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalandako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA

arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • **LESAKA**

SARA

Bai Euskarari akordioaren labela ukan dute herriko hogoita lau elkartek

Mendi bizikleta ibilaldia egin zen ekainaren 1ean

Joana eta Saski

Ekainaren 6an Sarako Herriko Etxean hogoita lau elkartek Bai Euskarari akordioko labela ukan dute: Herriko Etxea, lezeak, eskola pribatuko eta publikoko guraso elkarteak, Osasun Elkartea, Zangoak Arin, Besta Komitea, Sarako Izarra rugby eta pilota, Zazpiak Bat, Gaztetxea, Sara Korrika, Turismo bulegoa, Pullman eta Lastiry jabetxeak, Pleka trinketa, Anttonen eta Zeramika bentak, Herriko Etxeko edantegia, Garat medikua, Jarry kinesiterapeuta, Silvie ileapaindegia, VVF Village Vacances eta Olhain elkartea. Sariak Kontseiluko Xabier Mendiguren, Euskal Konfederazioko Frédéric Larronde, Jean Aniotzbehere auzapeza eta Kattin Bergararen partetik banatuak izan dira.

Errugbi taldea

Ekainaren 6an iragan

den biltzar nagusian aurtengo sasoinaren bilana egin da. Beraz, orokorki errugbieskola ongi ibili da txapelketa desberdinetan eta lehen ekipak sasoin eder baten ondotik Akitaniako txapela lortu du aise nagusituz Médoc eskualdeko ekipa bati (47-3). Urtea ongi bukatzeko, zikro bat antolatzeko dute ekainaren 29an, igandearekin.

Euskal presoak Euskal Herrira

Hilabete guziz beazala euskal preso politikoaren hurbiltzearen aldeko elgarretaratzea, ekainaren 27an iraganen da, ostiralarekin, plazan 19:30etan.

Mendi bizikleta ibilaldia

Bigarren aldikoz, turismo bulegoak VTT edo mendi bizikleta ibilaldi bat antolatu zuen ekainaren 1ean. Bi ibilaldi desberdin baziren aurretik, bat luzea 30 kilo-



ARGAZKIA: NEREA MARTIARENA

Euskal Konfederazioko Frédéric Larronde, Kontseiluko Xabier Mendiguren, Jean Aniotzbehere eta Kattin Bergara, Herriko Etxean egin zen labelaren sari banaketan.



ARGAZKIA: PHOTO C.M.L

150 lagunek parte hartu zuten itzulian.

metrokoa eta bertzea laburra 16 kilometrokoa. Ororat 150 bat parte-hartzaile izan dira, Akitania orotik etorriak.

Gainerat, xelauru-huste bat ere antolatu

zuten plaza animatzeko, egun osoan. Urtez urte arrakastatsuagoa bilakatzen da, gero eta jende gehiago hurbiltzen da eta agian bide hortatik segituko dute!

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ehnelur
euskal herriko nekazarrien elkartasuna
Mota guztietako gasolioa
Baserrietarako

Mikel 606 340630

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



EZKONTZAK

Jose Antonio Larralde Muxika eta **Susana Zelaia**ta **Elizaga**, Lesaka eta Berakoa, maiatzaren 31n.

Angel Maria Goienetxe Fagoaga eta **Estibaliz Maritxalar Ado**, Berakoa, maiatzaren 30ean.

Justo Joaquin Agirretxe Mazizior eta **Maria Jose Bikondoa Bikondoa**, Lesaka eta Elizondokoa, maiatzaren 30ean.

Iñigo Iturralde Elizetxe eta **Maria Jesus Goñi Otxandorena**, Berroeta eta Elizondokoa, maiatzaren 31n.

Ernesto Mendiberri Maisterrena eta **Maria Pilar Cordoba Saharrea**, Elbete eta Elizondokoa, maiatzaren 31n.

Victor Manuel Maestre Fuente eta **Maria Dolores Agirre Zabaleta**, Barakaldo eta Leitzakoa, maiatzaren 30ean.

Xabier Aierdi Razkin eta **Itziar Perurena Jaurena**, Leitzakoa, maiatzaren 31n.

Alain Lamothe eta **Claudine Hauciarce**, Sarakoa, ekainaren 14an.

Juan Carlos Etxeberria Albiazu eta **Amaia Artzallus Alberro**, Beintza-Labaien eta Irungoa, maiatzaren 17an.

Roberto Duran Roman eta **M^a Elena Medina Prieto**, Irungoak Etxalarren, ekainaren 14an.



SORTZEAK

Josu Altzugarai Etxebeste, Berakoa, maiatzaren 21ean.

Laida Oitz Kalaorra, Berakoa, maiatzaren 30ean.

Amaia Etxebarria Goia, Berakoa, maiatzaren 16an.

Miren Altxu Aizpuru, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 19an.

Irati Elizalde Garaikoetxea, Elizondokoa, maiatzaren 23an.

Unai Elorga Salaberri, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 14an.

Iraitz Azurmendi Barriola, Leitzakoa, maiatzaren 27an.

Olatz Arakues Mikelajauregi, Lesakakoa, ekainaren 2an.

Garbiñe Aiala Sanchez, Lesakakoa, ekainaren 3an.

Oihan Martinez Leiza, Iturengoa, maiatzaren 23an.

Angela Lucia Irigoien Telletxea, Doneztebekoa, maiatzaren 30ean.

Enzo Caruso, Sarakoa, maiatzaren 24an.



HERIOTZAK

Juana Maria Arraztoa Elizalde, Zigakoa, maiatzaren 31n, 96 urte.

Vicenta Goñi Hualde, Erratzukoa, ekainaren 3an, 91 urte.

Felisa Mendikoa Bikondoa, Iruritakoa, ekainaren 8an, 86 urte.

Saturnina Trancho Carrasco, Elizondon, ekainaren 8an, 75 urte.

Isidoro Altzuguren Agirre, Berakoa, maiatzaren 28an, 84 urte.

Cipriano Goñi Bereau, Arantzakoa, maiatzaren 28an, 74 urte.

Jose Ortiz Imaz, Aranon, maiatzaren 29an, 74 urte.

Pedro Alberro Burgete, Elbetekoa, ekainaren 1ean, 50 urte.

Felipe Huarte Huarte, Zigakoa, ekainaren 7an, 71 urte.

Antonio Lazkano Ustariz, Gaztelukoa, ekainaren 8an, 73 urte.

Rosario Indakoetxea Ezkurra, Aresokoa, maiatzaren 25ean, 80 urte.

Jean Ursuegi, Sarakoa, 87 urte.

Manuel Zapelena, Sarakoa, 86 urte.

Maria Bautista Ansalas Irisarri, Etxalarkoa, ekainaren 4an, 79 urte.



Eskela eta eskertzak 948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin)
65 € ordaindu behar da
Rural Kutxako
3008 0080 53 0703304626
kontuan sartu eta
justifikantea **ttipi-ttapa**
igorri faxez edo postaz,
argazkiarekin eta sartu nahi
den testuarekin batera.



Pedrito IRIGOYEN IRAOLA

IV. URTEMUGA (Bera, 99.07.06)

*Seguru urte aunitz pasatuko direla,
eta hau laugarrena bertzerik ez dela izanen
baina urteak kontatu ahal izateak berak
zurekin ahazten ez garela adierazten du.*

Pepita, Josema eta Patxi



TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta
Zugarramurdi

24 orduko zerbitzua
tanatorioan eta etxean
prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

FUTBOLA



ARGAZKIA: AITOR

Lehen urteko Beti Gazteko infantil mailako futbol taldea, San Cernin taldeari irabazitako finalerdiko partida hasi baino lehen. Gero ezin izan zuten finala irabazi, baina txapelketa bikaina jokatu dute.

Beti Gazteko infantilak Nafarroako Federazio Kopan azpitxapeldun

Ekainaren 7an jokatu zuten finala Iruñean Tafallés taldearen kontra

A.A.

Haundiek bezalaxe, infantil mailako Lesakako Beti Gazteko jokalariek Alirona kantatzeko aukera izan dute aurtan, Nafarroako Federazio Koparen finala jokatu baitzuten ekainaren 7an Iruñean Tafallés taldearen kontra. Asier Biurarenaren golen bitartez, 0-1 eta 1-2 aitzinetik izan baziren ere, azkenean 4-2 galdu zuten Beti Gaztekoek. Halere, lehiaketa ederra jokatu du Beti Gazteko. Final laurdenetan San Ignacio kanporatu zuen, Lesakan 5-1 irabazi ondotik Iruñean 3-0 galdu arren. Mastegin jokatu zen finalerdia, partida bakarrean, eta San Cernin taldeari 4-0 irabazi ondotik, merezimendu osoz fi-

nalera sailkatu zen Lesakako taldea.

Aurtengoan talde bereziak izan ditu Beti Gazteko infantil mailan. Izan ere, betidanik harrobia osatu duten jokalariekin batera, Oriotik datozen jokariak ere aritu dira Beti Gazterekin, lehen eta bigarren urteko taldeetan. Kontua da Gipuzkoan ez dutela adin hauetan konpetizio kirolean aritzen uzten eta azken urteetan, benjamin eta alebin mailako Mastegiko futbol-7 txapelketan arituak dira Orioko neska-mutikoak. Aurtan, adinez pasatu eta Beti Gaztera elkarrekin dira oriotarrak, Nafarroako ligan lehen eta bigarren mailan eta, orain, lehendabiziko urtekoak, kopan aritzeko. Entrenatzailea ere orio-

BETI GAZTE INFANTILAK: FEDERAZIO KOPA

Joseba REQUEJO GARATE	ORIO
Mikel Aitor FLORES COMPAINS	LESAKA
Aritz TELLETXE ANZIZAR	LESAKA
Luis PEREZ ATXEGA	ORIO
Joseba ARRONDO ROMERO	ORIO
Iniigo OSTIZ ESCALADA	DONEZTEBE
Jaime SEIN OSINAGA	DONEZTEBE
Ugutz ZELAIETA FERNANDEZ	OITZ
Ibai RETEGI ZAMORANO	IGANTZI
Asier BIURRARENA UBIRIA	LESAKA
Borja ZUBIZARRETA ARAMENDI	ORIO
Gorka MIRALLES ONDOZABAL	ORIO
Fred Jose RAMOS LASAGA	LESAKA
Enaut MARTÍ ZINKUNEGI	ORIO
Jon Ander GARMENDIA ZULAIKA	ORIO
Joseba MURGIENDO AIERZA	ORIO
Jon SALABERRIA TXOPERENA	LESAKA
Igor GURRUTXAGA ERRANDONEA	LESAKA
Jokin TABERNA ETXEBERRIA	LESAKA
Frans Luis RAMOS LASAGA	LESAKA
Ander MARITXALAR NARBARTE	LESAKA
Iñaki EIZAGIRRE SAN SEBASTIAN	ORIO
Joseba IRIGOIEN URTXEGI	LESAKA
Iñaki PIKABEA LARRALDE	LESAKA
Julen CASADO BRAVO	ORIO
Entrenatzailea: Jose Javier PEREZ MEDIAVILLA	

tarra dute infantil mailako lehendabiziko ur-

tekoek, Jose Javier Perez.

FLASH

Aurrera futbol taldea mailaz jaitsi da

Corellanoren kontrako azken partida 2-0 irabazi baldin bazuen ere, ezin izan dio Nafarroako Preferente mailari eutsi Leitzako Aurrera taldeak. 16. izan dira, 15.ren puntu berekin, baina golen aldearen- gatik, maila galdu dute.

